

en relación con los biobancos” por Cristina Blohm-seewald. En este último tras definir los diferentes tipos de biobancos se entra en aquellos que almacenan datos sobre el genoma humano con el fin de establecer una relación entre disposición genética, estilo de vida y enfermedad, analizando, desde un punto de vista jurídico, la problemática de los biobancos de investigación genética de poblaciones aisladas (situación en la que el polimorfismo genético es menor).

El libro finaliza con un artículo de Leire Escajedo San Epifanio, sobre la relación entre los productos transgénicos y la alimentación en el tercer mundo. Existe un debate entre su utilidad para mejorar la alimentación en el tercer mundo y los peligros sobre el uso de las semillas trasgénicas. Por un lado esas semillas son más resistentes a la sequía, por otro aumenta la dependencia de los agricultores respecto de las multinacionales, cuando el problema no es de déficit de alimentos sino de un reparto injusto de los mismos (pp. 322-3).

Por lo tanto, todos los aspectos relativos a la relación de la biotecnología con el desarrollo y la justicia son tratados en este completo libro. Este libro coincide con las preocupaciones de sostenibilidad social existentes en Eusko Ikaskuntza y que le ha llevado a que el lema del próximo congreso, a celebrar este año, sea “Innovación para el progreso social sostenible”.

*Pedro Gorrotxategi Gorrotxategi*



**UGARTEMENDIA EZEIZABARRENA, Juan Ignazio; ZELAIA GARAGARZA, Maite (koor.)**  
**Espainiako Konstituzioa / Constitución Española**  
Legeak – Leyes Bilduma, 1. zenbakia  
Bilbo: Euskal Herriko Unibertsitateko Argitalpen Zerbitzua, 2006. – 174 or. ; 22 cm. – ISBN: 84-8373-851-1.



**BIURRUN MANCISIDOR, Garbiñe; BENGOTXEA ALKORTA, Aitor (koor.)**  
**Lan Arloko Prozeduraren Legea / Ley de Procedimientos Laboral**  
Legeak – Leyes Bilduma, 2. zenbakia  
Bilbo: Euskal Herriko Unibertsitateko Argitalpen Zerbitzua, 2007. – 295 or. ; 22 cm. – ISBN: 84-8373-894-5.



**AGOUES MENDIZABAL, Carmen; URKOLA IRIARTE, Jasone (koor.)**

**Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioaren Legea / Ley de Jurisdicción Contencioso-Administrativa**

Legeak – Leyes Bilduma, 3. zenbakia

Bilbo: Euskal Herriko Unibertsitateko Argitalpen Zerbitzua, 2007. – 245 or. ; 22 cm. – ISBN: 978-84-8373-895-5.



**UGARTEMENDIA EZEIZABARRENA, Juan Ignazio; ZELAIA GARAGARZA, Maite (koor.)**

**Konstituzio Auzitegiari Buruzko Lege Organikoa / Ley Orgánica del Tribunal Constitucional.**

Legeak – Leyes Bilduma, 4. zenbakia

Bilbo: Euskal Herriko Unibertsitateko Argitalpen Zerbitzua, 2007. – 116 or. ; 22 cm. – ISBN: 978-84-8373-895-5.



**ALKORTA IDIAKEZ, Itziar; TAMAYO ERRAZQUIN, José Ángel (koor.)**

**Kontsumoari Buruzko Legeak / Leyes Sobre Consumo**

Legeak – Leyes Bilduma, 5. zenbakia

Bilbo: Euskal Herriko Unibertsitateko Argitalpen Zerbitzua, 2007. – 198 or. ; 22 cm. – ISBN: 978-84-9860-036-0.

Azken urte hauetan, hainbat proiektu jarri dira martxan euskararen erabilera juridikoa plazaratzeko. Une honetan, behin euskara juridikoa Unibertsitatea eta hezkuntza sisteman sendotu denean, erabilera hori praktikoa egiteko ordua heldu da. Eta egiteko honetan, Administrazio publikoak eta Justizia Administrazioak arduraz berezia dute, izan ere hemen ebazten baitira gizabanakoan eskubide eta betebeharrak. Aurkezten dizuedan liburu bilduma honen argitalpena, beraz, eman beharreko ondorengo urratsa zen. Leloak dioten bezala “atzera edo aurrera” egin beharra zegoen eta, nahiz eta erronka handia izan, Zuzenbide Fakultateko Euskara Juridikoaren Mintegia osatzen duten irakasle taldeak, arduraz heldu diote erronka honi.

Legegile eta itzultzaileek egindako banakako esfortzuarri esker, dagoeneko hainbat lege euskaratuak izan dira. Baina hiztegi juridikoa eta arauen itzulpena bateratzeko egin behar den ahaleginak, lan bateratua eskatzen du, irizpideak, itzulpen metodoa

eta hiztegi juridikoa ere komunak izan daitezzen. Hori dela eta sortu zen proiektu hau aurrera eramateko ideia. Horretarako ezinbestekoa zen bildumaren enborra Espainiako Konstituzioan kokatzea. Testu hau “lege guztien iturria” kontsideratzen denez gero, bere edukia garatzeko argitaratzen diren ondorengo lege guztietan islatzen da. Zentzu berdinean, bilduma honetan itzuli diren beste legeak ere oinarrikoak dira bakoitza bere esparruan, hots, konstituzio zuzenbidean, kontsumo zuzenbidean, administrazio eta lan jurisdikzioan. Gai hauek bost liburutan jorratzen dira eta, esan bezala, bost liburuetan irizpideak komunak izan dira, eta baita lanaren egitura ere: liburu guztietan jasotzen da hitzaurrea, doktrinaren ekarpen laburra, legea eta lexiko jasotzen duen atala.

*Legeak 1 Leyes. Espainiako Konstituzioa - Constitución Española* izenburua duen lehenengo liburuarekin emango diogu hasiera. Lanaren koordinatzaileak izan dira Juan Inazio Ugartemendia eta Matie Zelaia irakasleak; itzultzailea Patxi Petrarena.

Konstituzioaren inguruko hitzaurrearekin hasten da aurkezten dizuedan liburua. Bertan Joseba Azkarragak, Lan eta Gizarte Segurantzza Sailburuak, estatu antolakuntzari egiten dio aipamena. Autonomia estatuaren inguruko hausnarketa labor bano zuzena egiten du, 1978ko abenduan onartutako eredia eguneratzeko beharra dagoela azpimarratuz, arauen interpretazioa hedakorra edo murriztailea izan daitekeela gogoraziz. Bere iritziz, edozein kasutan, aipaturiko interpretazioa eguneratu egin behar da, denboraren poderioz errealitatea aldatu egiten delako. Esaterako, Europako Batasunako eskuduntzen banaketari aplikazioa emateko, kontutan hartuta kasu askotan Europako Batasunak Autonomia Erkidegoei eskumen zuzen eta berehalakoak esleitzen dizkietela.

Liburuan aipatzen den bezala, Espainiako Konstituzioa duela 30 urte onartutako testua izanik hainbat itzulpen lanen objektu izan da, lehenengoa 1978. urtean. Dena dela, *Legeak-Leyes* izenburupean argitaratzen den bilduma honen oinarriko itzulpen testua Konstituzioa izan behar zuela argi zegoen, eta horrela azaltzen da lehenengo liburu honetan. Bertan, hau da, Konstituzioaren itzulpen honetan, finkatuko dira itzulpenaren oinarriko estilo, sintaxi, lexiko eta interpretazio irizpideak, eta honetan datza, hain zuzen ere bilduma honen benetako interesa eta ekarpena.

Bigarren liburuak *Legeak 2 Leyes. Lan Arloko Prozeduraren Legea - Ley de Procedimiento Laboral* izenburua du. Testuaren koordinatzaileak izan dira Garbiñe Bihurrun eta Aitor Bengoetxea irakasleak. Itzultzaileak Irene Aldasoro eta Patxi Petrarena. Liburuaren hitzaurrean Joseba Azkarragak, Lan eta Gizarte Segurantzza Sailburuak, Lege honen garrantzia azpimarratzen du, eta bere edukia interpretazio eta aplikazioa eguneratu egin behar direla azaltzen du. Esaterako, Lan Arloko Prozeduraren Legea eta Prozedura Zibilaren legeak duten lotura estua da. Azken honek hainbat aldaketa jasan ditu eta aldaketa horiek ere lan prozeduran eragiten du. Antzekoa gertatzen da 8/2003 Legearekin, Konkurtsoen Erreformatarako Lege Organikoa arautzen duena; azken aldaketa honek ere modu zuzenean ukitzen du Lan Arloko Prozeduraren Legea.

Hirugarren liburuak, *Legeak 3 Leyes. Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioaren Legea-Ley de la Jurisdicción Contencioso Administrativa* jasotzen du. Lanaren koordinatzaileak izan dira Carmen Agoues eta Jasone Urkola irakasleak; itzultzaileak Irene Aldasoro eta Patxi Petrarena. Testuaren hitzaurrean, Joseba Azkarragak, Lan eta Gizarte Segurantzza Sailburuak, lege honen garrantzia azpimarratzen du. Lehenik eta behin, arau honek Administrazio publikoa eta Justiziaren arteko harremanak bideratu behar ditu, Administrazioaren egintzak berrikusteko aukera emanez. Bigarren, epaitu beharreko eremu sortu berriei egiten die aipamena, hala nola ekonomiaren ordenazio juridikoa eta administrazioaren interbentzio eremuak. Carmen Agoues eta Jasone Urkolak

Administrazio publikoaren kontrolaren garrantzia azpimarratzen dute. Hauen iritziz, Administrazio publikoaren funtzionamendua hobetzeko auzien jurisdikzioak erantzukizun berezia dauka, baina ez da nahikoa. Hiritarren benetako babes ahalbideratzeko, auzien jurisdikzioak duen berme izaera indartu egin behar da. Hiritarren eskubideen ikuspegitik adibidez, hizkuntza ofizialen erabilera jasotzen da Botere Judiziala arautzen duen Lege Organikoan, besteren artean, eta eskubide honen erabilera normalizazio bidean aurkitzen bada ere, bai Administrazio publikoan bai epaitegi eta auzitegietan, oraindik ere landu beharreko esparrua da, eta zeregin honetan Auzien Jurisdikzioaren Legearen itzulpen honek garrantzi berezia du.

*Legeak 4 Leyes* liburua zuzenbide publikoaren eremuan kokatu behar dugu baita ere. Liburuaren izenburua da *Konstituzio Auzitegiari Buruzko Lege Organikoa-Ley Orgánica del Tribunal Constitucional*. Juan Ignacio Ugartemendia eta Maite Zelaia irakasleek koordinatu dute lana, eta itzultzaileak izan dira Irene Aldasoro eta Patxi Petriarena. Joseba Azkarragak, Lan eta Gizarte Segurantza Sailburuak, euskara juridikoaren normalkuntza prozesuan lege honek duen garrantziaz mintzatzen du. Europar Kontseiluak 1992ko azaroaren 5ean onetsi zuen Hizkuntza Gutxituen Europako Kartak, normalkuntza hau lortzea Espainiako gobernuaren ardura dela dio. Eskubide hau betetzeko Espainiako gobernuak hainbat neurri hartu behar ditu, hala nola justizia administrazioan estatuko arau nagusia hizkuntza ofizialetara itzultzeko obligazioa. Neurri hori ez da bete, eta Eusko Jaurlaritzak hutsune hau betetzeko, orain aurkezten den arau bilduman honetan parte hartu du. Itzultzen den testua, Konstituzio Auzitegiari Buruzko Lege Organikoa alegia, hainbat erreforma eduki ditu azken urtetan eta aldaketa hauek ere kontutan hartu dira. Egungo arau nagusien artean aurkitzen da aipaturiko Legea, Konstituzioa alegia. Konstituzioa arau nagusia da eta Konstituzio Auzitegia bere interpretatzaile nagusia.

Bildumaren azkeneko liburua *Legeak 5 Leyes. Kontsumoari buruzko Legeak- Leyes sobre consumo* zuzenbidearen alor pribatura eramaten gaitu. Lanaren koordinatzailea Itziar Alkorta irakaslea izan da, eta itzultzaileak Irene Aldasoro eta Patxi Petriarena. Liburaren itzaurrean Joseba Azkarragak Lan eta Gizarte Segurantza Sailburuak dioten bezala liburu honetan jasotzen diren legak ezaugarri komunak dituzte: bate-tik, kontsumitzailearen defentsaren inguruko arauak dira, eta bestetik, Europako Batasunak emandako hainbat arau barneratzen dute. Liburu honetan, hiru legeen itzulpena jasotzen da: 26/1984 Legea, kontsumitzaileen eta erabiltzaileen defentsarako; 7/1998 Legea, kontratu-baldintza orokorreari buruzkoa; eta 22/1993 Legea, produktu akastunek eragindako kalteen erantzukizun zibilari buruzkoa. Itziar Alkortak arau hauek hautatu izanaren arazoia azaltzen digu: egun gai honek duen gizarte-mailako garrantzia eta hedapena. Kontsumo-gizartearen kontsumitzailea subjektu pasiboa izatetik subjektu aktibo izateko medioak ipini behar dira, eta Kontsumo Zuzenbideak esparru berria osatzen du, kontsumitzaileen eta erabiltzaileen defentsarako lagungarri diren alderdi guztiak arautuz.

Aurkeztutako bilduma *Legeak Leyes* Eusko Jaurlaritzako Justizia Departamentuaren babesarekin egin da. Argitalpenaren Koordinazioa José Angel Tamayo irakasleak burutu du; itzultzaileak izan dira Irene Aldasoro eta Patxi Petriarena. Bilduna honetan parte hartu dute baita ere Zuzenbideko Euskararen Mintegiko Arduraduna, Antton Elozegi, eta EHUKo Euskara Zerbitzuaren burua, Juan Garzia.

Joseba Azkarraga Justizia, Lan eta Gizarte Segurantza Sailburuak bildumaren lehenengo liburuan lan hau aurrera ateratzeko erantzukizuna azpimarratzen du; parte hartu duten irakasleen erantzukizuna eta baita Eusko Jaurlaritzarena ere. Are gehiago, ez bakarrik erantzukizuna, militantzia ere aipatuko nuke nik, eta euskararenganako benetako ardura eta kariñoa gehituko nituzke, profesionaltasuna eta konpromezua.

## Reseña

Lerro hauen bidez zorionak eman nahi dizkiet proiektu honen koordinatzaileei, egindako ekarpenagatik, eta proiektu hau aurrera eramateko osatutako lan taldeagatik. Zorionak baita ere parte hartu duten irakasle eta itzultzaileei, egindako esfortzuagatik eta euren eskarmentua liburu batean jasotzeko ausardia eta ardura eduki dutelako.

*Silbia Sarasola Gorriti*